

EUSKAL KOSTALDEKO BI ERIETXEEN ARTEKO LANKIDETZA TOPAKETAK IRAGAN DIRA ATZO BAIONAN

Baionako eta Donostiako ospitaleen arteko harremanak sendotzen ari dira

■ Bi ospitaleek lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten joan den ekainean, hainbat alorretan elkarlana abiatzeko

■ Atzo, egun osoan, bi erietxeetako profesionalek sei gai jorratu zituzten, ibilmoldeak konparatzeko

■ Bi hirien hurbiltasuna dela eta, Baionako eta Donostiako ospitaleak proiektu konkretu bat prestatzen hasi dira

Lutxi Fourcade / Baiona

BAIONAKO eta Donostiako ospitaleetako hainbat profesional bildu ziren atzo Baionan. Goiz osoan, bi erietxeen funtzionamendua aipatu zuten, lau gai berezi jorratuz: ospitaleen ibilmoldea hondamendi egoeran, hiesaren tratamendua, erizainen arta planifikazioa eta buruhiltzeen laguntza. Arratsaldean, berriz, gai komun bat jorratu zuten elkarrekin: istripu larrien biktimen tratamendua bi eskualdeetan.

«Topaketa hauek dira elkarrekin egin dugun lehen haurra», adierazi zuen Jean Jacques Romatetek, Baionako ospitaleko zuzendariak. Hain zuzen, bi egiturek lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten joan den ekainean, harremanak sendotzeko. Helburua zen profesionalen trukeak bultzatzea eta eguneroko praktikak elkarrekin aipatzea. «Iruditu zitzaigun ez zela normala auzokide izan eta elkarrekin mintzatu eta lan egin gabe egotea. Aki-zeko ospitalearekin harreman handiak ditugu, baina Donostiarekin ez zegoen loturarik, eta eskas hori bete nahi izan dugu», gaineratu zuen.

Hitzarmena izenpetu zene-tik, hainbat lan bilera egin dituzte bi ospitaleetan. Besteak beste, mugaz bi aldeetako egiturek larrialdietako zerbitzuak konparatu dituzte. «Interesgarria da ikustea auzoa nola ari den lanean, eta beti ikasten da gaixoen arta hobetzeko», azpimarratu zuen Xabier Orbegozok, Donostiako Arantzazuko Ama erietxe-ko medikuen arduradunak.

Bi haurride hurbiltzeko urratsak

Lehen elkarretaratzea izanez, medikuntza baizik ez zuten aipatu bildutako kide-ek. Antolatzaileek nahitara baztertu zuten lege ezberdi-



BOB EDMÉ

Baionako eta Donostiako medikuak, atzoko topaketan.

nen aipamena. «Badakigu zaila dela mugaz bestaldeko erietxe batean sartzea, Europako legeak hertsia dira eta; baina, gure aburuz, egoera hori ez da normala, eta indarrak egiten ditugu gauzak aldatzeko», azpimarratu zuen Jean Jacques Romatetek. Esaterako, bi egiturak proiektu komun bat prestatzen hasi dira, aktibitatea partekatuzko. «Orain arte,

Bordelekoarekin egiten gogo genuen, baina Donostiari buruz itzuli gara azken asteotan. Ez dugu baztertzeko Bordele, baina ordu erdiko bidea egin edo bi ordukoa egin, alde ederra izanen da senideentzat!».

Bi ospitaleen arteko ondoko topaketek irailean segituko dute, Donostian. Anartean, bi egiturek lanari ekinen diote aztertze-ko hondamendi

batzen tratamendua. «Konkretuki, zerbait gertatzen bada, behar dugu ikusi nola-ko laguntza ekar diezaiogun auzoari, erien tratamendua antolatzeko», azpimarratu zuen Jean Jacques Romatetek. Praktikan puntu aurreratuena hori dela baieztatu zuen Orbezogok, nahiz eta bi egituren artean ezberdintasun handiak izan. «Medikuek lan

berdina egiten dute, baina antolakuntza arrunt ezberdina da mugaz bi aldeetan: Baionako antolakuntza Paristik etorri da eta Donostiakoa Madrildik! Alabaina, poliki-poliki, dena martxan jarriko dela uste dut, urrun ziren haurrideak hurbiltzen diren bezala», azaldu zuen Arantzazuko Ama erietxe-ko medikuen koordinatzaileak.

Erantzun bera hiesari

■ «HIES epidemia antzekoa da mugaz bi aldeetan eta erantzun bera eman behar diogu», azpimarratu zuen Jean Jacques Romatetek Baionako ospitaleko zuzendariak. Atzo goizean, Iribarren Donostiako medikuak eta Farbos Baionako medikuak mugaz bi aldeetako egoerak aztertu eta puntu komun franko badela azpimarratu zuten. Esaterako, epidemiaren han-

ditzea gelditu da, baina informazio lan handia egin arren, gaixo berriak agertzen dira. Era berean, zailtasun berak daude tratamendu luzeak eta piztuak onartarazteko. «Triterapia agertu denetik, hiesdunek tratamendu handiak dituzte eta zaila da jarraipena lortzea», gaineratu zuen.

«Azken finean, arazo berberak ditugu mugaz bi aldeetan, eta in-

teres handia dugu elkarrekin lanean ari-zeko», azaldu zuen Romatetek. Izan ere, truke ugari daude toxikomania alorrean, eta bi ospitaleetako arduradunek funtsezko-tzat jo zuten truke horiek bultzatzea epidemiaren aurka borrokatzeko ere. «Molde hoberena hori da eritasuna hobeki tratatzeko eta bere orokortasunean hartzeko», gaineratu zuen.

Alabaina, mugaz bi aldeetako egoeraren puntua egin baino gehiago, Baionako ospitaleko medikuek Donostiakoei elementu berriak eskaintzeko baliatu zituzten topaketak. Izan ere, Frantziako Estatuko Hies eta Pediatria zerbitzuek inkesta berri bat egin dute ama hiesdunen egoera hobeki ezagutzeko. Helburua zen eritasunaren transmisioa ikertzea eta trata-

menduen puntua egitea. «Inkesta sakona egin da eta ziur gaude Hego Euskal Herriko lankideek baliatzen ahalko dutela».

Antolatzaileen us-tez, gaiari buruzko trukeak antolatzea beharrezkoa izanen da medikuen arteko harremanak sendotzeko. «Geroan, nahi izanez gero, elkarrekin segitzen ahalko dute lanean», azpimarratu zuen Romatetek.